

2013ko Europar Hiritarraren Saria Euskaltzaindiari

Euskera. 2013, 58, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



2013ko Europar Hiritarraren Saria Euskaltzaindiari. Ekitaldien Kronika

Ekainaren 6an, Europar Parlamentuak jakinarazi zuen Euskaltzaindiak 2013ko Europar Hiritarraren Saria jaso zuela. Parlamentuak berak aditzera eman zuenez, Europa osoko 21 herritako 43 hautagai sarituak izan ziren 2013an, horien artean Akademia.

Europar Parlamentuak 2008an sortu zuen Europar Hiritar Saria. Horren helburua, Europako balioak, hiritar guztien gizarteratzea edota Europar Batasunean dauden estatuen arteko elkarlana sustatzen dituzten pertsonak edo erakundeak saritzea da. Parlamentuak jakinarazi zuenez, Izaskun Bilbao europarlamentariak aurkeztu zuen Euskaltzaindiaren hautagaitza. Bestalde, PAH Hipotekak Kalte Egindakoen Plataformak ere jaso zuen saria.

Sari-emate ekitaldi bi egin ziren. Lehena, irailaren 23an izan zen, Madril, Europar Parlamentuaren ordezkartzan. Andres Urrutia euskaltzainburuak jaso zuen saria, Akademiaren izenean, Enrique Barón epaimahaikidearen eskutik. Saria jasotzean, Europar euskararentzako lekua aldarrikatu zuen Andres Urrutia euskaltzainburuak.

«Egun –esan zuen– mugek gero eta eragin gutxiago dutenean, Euskaltzaindiak ere hori baliatzen du Euskal Herri osoko euskaltzaleak batzeko eta ahaleginetan jartzeko. Espainia eta Frantziaren arteko mugan dagoen euskararen herrialde osoan lan egiten du euskara, aspaldiko hizkuntza, iraganeko bitxia baino, gaur egungo eta etorkizuneko hizkuntza izan dadin, Europako beste hizkuntzekin batera».

Euskera. 2013, 58, 1. 13-15. Bilbo
ISSN 0210-1564

Esker oneko hitzak esan zituenean, euskalgintza izan zuen gogoan: «Eskerrak, orobat, euskal jendeari, eta euskal kultura egiten duten guztiei, horien eguneroko ahaleginik gabe ezinezkoa izango bailitzateke Euskaltzaindiaren lana. Euskalgintzari asko zor diogu eta berarentzat ere bada sari hau».

Andres Urrutiarekin batera, Erramun Osa Euskaltzaindiko idazkariordea izan zen Madrilen, Europar Parlamentuaren ordezkartzan. Bestalde, Izaskun Bilbao Akademiaren hautagaitza sustatu zuen eurodiputatu eta Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordea ere joan ziren.

Sari-emate ekitaldi nagusia, baina, urriaren 16an eta 17an, Bruselan egin zen, Europar Parlamentuaren egoitzan, sari-emate ekitaldi nagusian. Hone-tan ere, Andres Urrutia euskaltzainburuak jaso zuen saria, Martin Schulz Parlamentuko presidentearen eskutik. Euskaltzainburuak, euskarak Europan jokatu behar duen rola azpimarratu zuen. Bere esanetan, sariak, euskarari, behar eta aldarrikatzen duen ikusgarritasuna ematen dio. Euskalgintzari dagokiola ere nabarmendu zuen.

Bere hitzaldian, laster ehun urte beteko duen erakundearen ibilbidearen garrantzia azpimarratu zuen Urrutiak. Hala, jaio zenetik, Euskaltzaindiak herritarren nahiarekin bat egin eta muga guztien gainetik euskararen alde lan egin duela esan zuen. Hortaz, erakundea sortu zutenak, eta garai latzetan ere bizirik mantendu zutenak ez ezik, gaur egun euskara normalizatzeko eta zabaltzeko lan egiten dutenak ere gogoan izan zituen.

Urrutiak Parlamentuan egindako egonaldia baliatu zuen hainbat pertso-nekin batzarrak egiteko. Hala, urriaren 16an, Eusko Jaurlaritzak Bruselan duen ordezkartzan izan zen; han, Marta Marín buruarekin eta ordezkartzako hainbat kiderekin batu zen.

Bestalde, *Desagertzeko zorian dauden Europako Hizkuntzak eta dibertsitate linguistikoa* txostena landu duen François Alfonsi eurodiputatu korsikarra-rekin bilera egin zuen. Txosten hori Europako Parlamentuak onartu zuen, 2013ko ekainean egindako bileran. Euskaltzainburuak, Euskaltzaindiaren

egoitzara joateko gonbita luzatu zion Alfonsiri, bertan txosten horretako nondik norakoa azal zezan.

Hurrengo egunean, urriaren 17an, Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Bulegoko zuzendariarekin bilera egin zuen Andres Urrutiak.

Euskaltzainburuarekin batera, Erramun Osa Euskaltzaindiko idazkariordea joan zen Bruselara.